

PATIOKO ARAUAK



TIBOLI ESKOLA

- 1. Sarrera- 3.or**
- 2. Irakasleen betebeharrak -3.or**
- 3. Ikasleen betebeharrak -5.or**
- 4. Euria egiten ez duenean -5.or**
 - 4.1. Futbola -6.or**
 - 4.2. Saskibaloia -6.or**
 - 4.3. Baloirik gabeko astea -7.or**
- 5. Euria egiten duenean -8.or**

1. Sarrera

Normalean, patioak zein komunak istiluetarako lekuak dira, baita pasabideetako komunak.

Askotan, ikasleek komunak erabiltzen dituzte irakasleengandik urrun egoteko, besteak mehatxatzeko, bihurrikeriak egiteko ...

Patioa, bestetik, oso leku aproposa da ikusteko zein motatako harremanak dituzten haien artean, nola dagoen banaturik eremua, zein den kirolarik inportanteena, ia generoaren perspektiba kontuan hartzen den ...

Gure eskolan denbora luzea daramagu aztertzen nola saihestu ahal dugun gustatzen ez zaizkigun egoerak, eta akordio batzuetara ailegatzen ari gara.

Horrek ez du esan nahi egoera konponduta dagoela, eta ez duela arazorik sortzen, esan nahi du prest gaudela arazoei aurre egiteko, eta ahalik eta hoberen antolatu nahi dugula esparru eta denbora hori. Jakin badakigu oso inportantea dela ikasleentzat, eta denontzat elkarbizitza lantzeko marko aproposa izatea.

2. Irakasleen betebeharrak

Irakasleen betebeharren barruan patio-zaintza dago; horrela adierazten dugu gure ordutegian. Dena den, patiora ez gara denok jaisten, nahiz eta guztiok edozein momentutan joateko egon.

Hau dela eta, zaintza egiten dutenek eta ez dutenek ardura desberdinak dituzte.

1. Patio-zaintza tokatzen zaienei:

- Klasean badago, oso puntual bukatzea; hobe, txirrina jo baino lehen.
- Euria egiten badu, edo zorua bustita badago, gogoraraztea ikasleei ez eramateko baloiak edo jolasen poltsa.
- Txamarra eta hamaiketakoa hartzea gogoraraztea.
- Gozokiak eta horrelako “txutxeak” (urtebetetzeko poltsak) ezin dira patiora jaitsi.
- Ikasleei, patiora joan aurretik, komunetik pasatzeko esatea.
- Klasean ez badago, txirrina entzun bezain pronto, patiora joatea.
- Ikasleak ezin dira patioan bakarrik egon, irakasleekin baizik, horregatik puntualak izan behar dugu.
- Ondo zaindu patioa arretaz eta arduratasunez.
- Patioko komunetara joateko baimena ematea, eta beharrezkoa bada klaseetara bueltatzeko ere bai.
- Patioa amaitu eta gero, txirrina entzutean, ikasleei laguntzea ilarak egiten.
- Ilarak igotzea.
- Patioan egonda, istripuren bat gertatzen bada, abisatzea.

2. Patio-zaintza tokatzen ez zaienei:

- Komunetan egotea ikasle guztiak lehen bai-lehen patiora bidaltzeko.
- Pasabideetatik ibiltzea ikaslerik ez dagoela ziurtatzeko.
- Gelan geratzen badira ikasleak, haiekin geratzea.
- Prest egon patiora jaisteko.

- Lehenengo asteetan, patiora ikasleen bila joatea, bakoitzak bere ilara antolatzeko eta gero igotzeko.

3. Ikasleen betebeharrak

Ikasleek patioan ere, eskolako beste leku batzuetan bezala, betebeharrak zehatzak dituzte:

- Patiora joan aurretik, komunitate pasatu behar dute.
- Eskailera nagusitik jaistea.
- Txamarra, hamaiketako hartu behar dute ... geroago ezin direlako klaseetara bueltatu.
- Irakasleek esandakoa betetzea.
- Jaten badute, paperontziak erabiltzea, patioa garbi uzteko.
- Birziklatzeko paperontzi horiak erabiltzea.
- Arazoren bat baldin badaukate edo zer edo zer arraroa ikusten badute, irakasleei esatea.
- Garbi jolastea, ez jotzea besteak eta istiluak konpontzea.
- Aste bakoitzari dagokiona errespetatzea.
- Egun bakoitzean eta leku guztietan adierazita dagoen lehenetsua errespetatzea.
- Txirrina entzutean, jolasteari uztea, eta ilarak egitea.
- Ondo igotzea ormatik, oihukatu gabe.
- Ezin dute ekarri telefono mugikorrak, edozein makina, jolas arriskutsuak ...
- Erabilitako baloiak beti bigunak izango dira.

4. Euria egiten ez duenean

Gure eskolak 2 patio txikiak ditu: goikoa eta behekoa. Euria egiten ez duenean, goikoa Haur Hezkuntzakoek erabiltzen dute (10:45etik 11:15era), eta geroago LH-ko 1. ziklokoek (11:15etik 11:45era). Behekoa LH-ko 2. eta 3. ziklokoek erabiltzen dute.

Erabilera ona eta denon gustukoa (ikasleek haien iritzia eman dute) egiteko 3 aste desberdin antolatu ditugu:

1. Futbolean jolasteko astea (ostirala izan ezik).
2. Saskibaloian jolasteko astea (ostirala izan ezik).
3. Baloirik gabeko astea.

4.1. Futbola

Futbolean jolasteko eremua aterpea da; gainerako patioan jolas desberdinak egingo dituzte, nahi izanez gero baloiekin.

Aterpean futbolean jolasteko, kurtsoen lehentasuna adierazita dago:

Astehenean – 4. maila

Asteartean – 3. maila

Asteazkenean – 5. maila

Ostegunean – 6. maila

Ostiral guztiak baloirik gabekoak dira, eta jolasen poltsa jaisten dute arduradunek.

4.2. Saskibaloia

Saskibaloian jolasteko eremua kantxa da; gainerako patioan jolas desberdinak egingo dituzte, nahi izanez gero baloiekin (baina futbola ez)

Saskibaloian jolasteko, kurtsoen lehentasuna adierazita dago:

Astehenean – 4. maila

Asteartean – 3. maila

Asteazkenean – 5. maila

Ostegunean – 6. maila

Ostiral guztiak baloirik gabekoak dira, eta jolasen poltsa jaisten dute arduradunek.

4.3. Baloirik gabeko astea

Aste honetan egunero jaisten da klaseko jolasen poltsa. Klasean eskegita egongo da, eta ondoan kokatu behar da material-orria, arduradunen egutegia eta betebeharrak.

Arduradunaren papera / betebeharrak

- Jolastu ahal du, baina jolasak kontrolatu behar ditu.
- Saiatuko gara patioan eskitokiak jartzen, baina ipintzen diren bitartean poltsa aldean eraman behar dute.

- Norbaitek jolasa hartu edo utzi nahi duenean, arduradunak jolasteari utzi behar dio, eskatzen dioten aldaketa egiteko eta jolasa ondo bueltatu duten egiaztatzeko.
- Kontrolatu behar du
 - nori uzten dizkion jolasak.
 - ea ondo erabiltzen ari diren.
 - amaitzean ea osorik bueltatzen diren.
- Zerbait falta edo apurtzen bada tutoreari esan.
- Klaseko jolasak klaseko baten ardurapean utzi behar du (nahiz eta honek beste gelakoekin jolastu).
- Batzeko orduan jolasak kontrolatu.

Beste ikaskideen papera / betebeharrak

- Jolasak ondo erabili eta zaintzea.
- Jolas batekin amaitzen dugunean, arduradunari ondo batuta ematea.
- Ikusten badugu lagun bat txarto erabiltzen ari dela jolas bat, lagunari nola erabiltzen den ondo azaltzea.
- Jolas bat hartzen dugunean beste klaseko batzuekin jolastu ahal dugu baina gure ardurapean.
- Txirrinak jotzen duenean jolasa batu eta arduradunari ematea.

Irakasleen papera / betebeharrak

- Denak ondo jolasten ari direla ziurtatzea.
- 5' bukatu baino lehen, txirrina jotzea.
- Material osoa ondo gordeta dagoela baieztatzea.

5. Euria egiten duenean

Euria egiten badu, patioko antolamendua aldatzen da. Alde batetik, 1. ziklokoak ezin dutenez goiko patioa erabili, 2. eta 3. ziklokoekin batera elkartzeko dira aterpean; bestetik, gimnasioa erabiltzeko aukera dago.

Eremu hori erabiltzeko lehentasuna adierazita dago.

Astlehenean – 4. maila

Asteartean – 3. maila

Asteazkenean – 5. maila

Ostegunean – 6. maila

Ostiralean - 1. ziklokoak

Dena den, egun guztietan lekua baldin badago 1. ziklokoak sar daitezke gimnasiaora edukiera bete arte.

Hiru irakasle geratuko dira aterpean eta beste bat gimnasiaora joango da. Horiek, atean geratuko dira kopurua eta lehentasuna kontrolatzeko. Aldi berean esan behar diete hamaiketako arauak:

- Hamaiketakoa bankuetan jesarrita jango da
- Paperak, plastikoak eta ontziak gimnasioko paperontzira botako dira.
- Hamaiketakoa amaitu eta gero jolasa eskatuko da.
- **EZIN DA JOLASTU HAMAIKETAKOA JATEN DEN BITARTEAN.**

Gimnasioko armairu batean jolas desberdinak daude ikasleek erabiltzeko. Irakasleekin batera 2 arduradun egongo dira (5. eta 6. mailako ordezkariak) arauak betearazteko.

Arduradunak ordezkariak dira

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
txanda	4. maila	3. maila	5. maila	6. maila	1. zikloa
ardura	5A -5B	6A-6B	5A-5B	6A-6B	6A-6B

Arduradunaren papera / betebeharrak:

- Jolasak banandu.
- Jolasten ez dakitenei erakutsi.
- Ondo erabiltzen dutela kontrolatu.
- Fitxa guztiak ondo batzen direla kontrolatu.

Beste ikaskideen papera / betebeharrak:

- Jolasak ondo zaindu.
- Txirrinak jotzen duenean jolasa batu eta arduradunari eman.
- Lagundu ondo jolasten ez dakitenei.

Irakasleen papera / betebeharrak

- Irakasleen kopurua eta txandak ziurtatzea.
- Arduradunen papera zaintzea.
- Ondo jolasten ari direla kontrolatzea.
- Arauak eta arduradunak errespetaraztea.
- 5' bukatu baino lehenago, material guztia batzeko esatea.
- Armairuan dena ondo baturik dagoela ikustea.



UME KOPURUA: 40 gehienez

ARDURADUNAK: 5. eta 6. mailakoak

Gimnasioa mahai-jolasetan aritzeko gunea da.

Jolastu baino lehen hamaiketakoak jaten da.

Arduradunari eskatuko diogu jolasa, eta ordenatuta bueltatuko diogu.

Psikomotrizitateko blokeak ezin dira ikutu, ezta jesartzeko ere.

Errekreaoa amaitu baino bost minutu lehenago batuko dira jolasak.

Arauk errespetatzen ez duenak egun bateko sartzeko eskubidea galduko du.